

Kantuen lehia hastear

Abesbatza Lehiaketa etzi hasiko da ▶ 2



Milaka lagun bildu dira Zizurkilgo azoka berezian

JENDETZA ▶ Eguraldia lagun, jarritako postuetan jende asko ibili zen; Iruña baserriak irabazi zuen

BALORAZIOA ▶ Bertso-dantza saioan ere jende asko izan zen; balorazio ona egin du Udalak ▶ 3



Eguerdi partean ibili zen jende gehiena Zizurkil Goian; argazkian, artisauen erakusketa Inbxaur pilotalekuan. J.SAIZAR

TOLOSA ▶

Futbol taldeak galdu egin du Lesakan

Ate aurrean huts egiten jarraitzen dute jokalariek ▶ 6

ANOETA ▶



HITZA

Ekitaldi ugari AHTren aurka

Parte-hartze handia espero dute aste honetan ▶ 4

ARESO ▶

Umeak eta gurasoak gustura antzerkian

'Udazkeneko bira' egitarauan sartzen da ekitaldia ▶ 7

ALEGIA ▶

Moldaketa ederreko kontzertu berezia izan da Txintxarri Egunean

Eliza jendez bete zen bi abesbatzak eta musikariak entzuteko igandean ▶ 5



Bi abesbatzak eta musikariak ikusleen txaloak jasotzen. J.SAIZAR

TOLOSAKO 36. ABESBATZA LEHIAKETA ▶



Badator... kantuen lehia

Etzi hasiko da Tolosako 36. Abesbatza Lehiaketa; guztira 706 parte-hartzailek jardungo dute, 23 taldetan banatuta

IRATXE ETXEBESTE

Etzi iluntzean hasiko da Tolosako 36. Abesbatza Lehiaketa, Tolosako Ekinbide Etxeak (TEE) eta Tolosako Udalak prestatutako ekitaldi berezi batekin. Izan ere, 20:30etik aurrera omenaldi kontzertua eskainiko diote Javier Bello Portu, konposatzaile tolosarra zenari, San Frantzisko elizan.

Handik aurrerakoak Alemaniak, Txekiak, Txinatik, Kubatik, Estoniak, Finlandiak, Herbeheretatik, Italiatik, Japoniak, Lituaniatik, Norvegiatik, Erresuma Batutik, Errusiatik, Suediak, Ukrainatik eta Euskal Herriko hiru lekutatik etorritako abesbatzetako kideek eskainiko dituzte. Guztira 706 lagun izango dira lehiaketan parte hartuko dutenak, 23 taldetan banatuta.

Ahots berdineko abesbatzak —Alemaniako Pfázische Kurrende, 24 emakumek osatua; Txekiako Foerster Female Chamber choir, 35 emakumek osatua; Estoniako Estonian TV

Girls choir, 35 emakumek osatua; Japoniako Brilliant Harmony, 25 emakumek osatua; Lituaniako Volunge female choir, 22 emakumek osatua; Ukrainiako Kiev Glier music college, 40 emakumek osatua eta Iruñeko Voces graves de Pamplona, 30 gizonen osatua—, ahots nahasietako abesbatzak —Alemaniako I Vocalisti, 19 emakumek eta 15 gizonen osatua; Kubako Schola Cantorum Coralina, 10 emakumek eta 10 gizonen osatua; Italiako Jubilata, 25 emakumek eta 20 gizonen osatua; Norvegiako Via Cantus, 13 emakumek eta 13 gizonen osatua; Erresuma Batuko Coro, 14 emakumek eta 13 gizonen osatua, The Elysian singers, 15 emakumek eta 12 gizonen osatua eta Trynity college of music, 12 emakumek eta 13 gizonen osatua eta Ukrainiako Khreschatyk Chamber choir, 11 emakumek eta 10 gizonen osatua—, ahots taldeak —Herbeheretako The Gents vocal ensemble, 15 gizonen osatua; Suediako Voces Nordi-

cae, 8 emakumek eta 8 gizonen osatua eta Ukrainiako Khreschatyk Chamber choir, 11 emakumek eta 10 gizonen osatua eta Kiev Glier music college, 40 emakumek osatua— eta haur abesbatzak —Txinako China Lily children choir, 40 neskek osatua; Finlandiako Vox aurea, 35 neskek osatua; Errusiako Poliot, 34 neskek eta 6 mutilek osatua; Suediako Adolf Fredriks Gosskör, 40 haurrek osatua eta Euskal Herriko Leioa Kantika koral, 32 neskek eta 4 mutilek osatua eta Gasteizko Luis Dorao Unamuno, 40 neskek osatua— izango dira Abesbatza Lehiaketaren edizio honetan parte hartuko dutenak.

Obra batzuk, nahitaezkoak

Urtero bezala, sail ezberdinak nabarmendu dituzte lehiaketaren antolatzaileek: polifonia, folklorea, musika sakratua eta musika profanoa, eta horrez gain, haurren lehiaketa izango da. Ahots nahasietan, euskal

EGITARAUA ▶

San Frantzisko, Santa Klara eta Santa Maria elizetan, Leidor zinema antzokian, Beotibar pilotalekuan eta Ferialekuan bihurtik astelehenera bitarte Tolosako 36. Abesbatza Lehiaketaren harira izango diren ekitaldiak dira hauek:

HILAK 27, ASTEAZKENA

20:30. Javier Bello Portu konpositore tolosarrari omenaldi kontzertua eskainiko diote San Frantzisko elizan.

HILAK 28, OSTEGUNA

19:30. Folklore eta polifonia sailetan lehiaketan parte hartuko duten abesbatzen kantaldia, Leidor antzokian.

HILAK 29, OSTIRALA

19:30 eta 22:30. Folklore eta polifonia sailetan lehiaketan parte hartuko duten abesbatzen kantaldia, Leidor zinema antzokian.

HILAK 30, LARUNBATA

11:00. Musika sakratu saillean lehiaketan parte hartuko duten ahots taldeen kantaldia, Santa Klarako elizan.

16:00. Musika profano saillean parte hartuko duten ahots taldeen saioa, Leidor aretoan.

20:00. Folklore eta polifonia sailetan parte hartuko duten abesbatzen emanaldia, Leidor zinema antzokian.

abestia eta folklorea sailerako Javier Bustoren *Ametsetan* lanaren zati bat kantatu beharko dute partaideek derrigorrez, eta polifoniarako Jesus Mari Sagarnarenaren *O Quam suavis est* hautatu dute. Ahots berdinetako abesbatzetan, Xabier Sarasolaren *Mendian gora* izango da obra behartua folklorea eta Jesus Eigurenaren *Ave Maria* polifonian. Haur abesbatzetako kideek David Azurzaren *Gaueko hamabitan* interpretatu beharko dute na-

HILAK 31, IGANDEA

11:00. Haur lehiaketan parte hartuko duten abesbatzen kantaldia Leidor zinema antzokian.

16:00. Folklore eta polifonia sailetan lehiaketan parte hartuko duten abesbatzen saioa, Leidor zinema antzokian.

19:30. Folklore eta polifonia sailetan lehiaketan parte hartuko duten abesbatzen kantaldia, Leidor zinema antzokian.

20:00. Abesbatza meza Santa Maria parrokian.

22:00. Udal Gorenaren eskutik, lehiaketan parte hartzen duten abesbatzetako zuzendariei eta pertsona ezagunei harrera ofiziala egingo zaie Leidor zinema antzokian.

23:00etatik 02:00etara. Abesbatza dantzaldia Beotibar pilotalekuan. Epaimahaiaren erabakia emango da ezagutzera bertan.

AZAROAK 1, ASTELEHENA

11:00. Amaierako saioa Leidor zinema antzokian. Sari eta izendapenen banaketa. *Agur jaunak* abestuz bukatuko dute ekitaldia.

14:30. Udal Ferialekuan, abesbatza bazkaria.

20:00. Tolosako Hodeiertz abesbatzak kontzertua eskainiko du San Frantzisko elizan.

hitaez, eta ahots taldeetakoek, berriz, ez dute nahitaezko lanik abestu behar musika erlijiosoa eta profanoa. Hori bai, a *capella* interpretatu beharko dituzte lan guztiak, eta gainerakoek bezala, hautatutako obretarako ezarritako baldintzak jarraitu beharko dituzte.

Sail bakoitzeko sariez gain, Kutxak ematen duen Europako sari nagusia eta *El Diario Vasco* egunkariak babesten duen Entzulegoaren saria dira jokoan. Zorte on!



36. Tolosako Abesbatza Lehiaketa

Babesle Ofiziala

ZIZURKIL ▶ VII. AZOKA BEREZIA



Jendea. Oso jendetsua izan zen Zizurkilgo azoka berezia eta milaka izan zirela gerturatu zirenak aipatu zuten. Intxaurre pilotalekuan artisauak bildu ziren eta Teodoro Hernandezena kalean, berriz, janari eta barazki postuak ikusi ahal izan ziren. 40 postu kontatu ziren guztira. LEIRE MONTES



'Baserriko argia' Saria 2004. Herriko Iruña baserriak irabazi zuen saria eta bertako Lesmes Mujikak (eskuinean) hartu zuen. Sari hau EBELek (emakume baserriarren elkartea) eman zuen. Sari hau Zizurkilgo baserriarren arteko postu hoberenari ematen zaio. HITZA



Bertsolariak ederki. *Iturrian zer dago?* bertso-dantza saioa izan zen ikusgai Zizurkil. Andoni Egaña eta Anjel Mari Peñagarikano ederki aritu ziren bertsoan, entzuleen gozamenerako. J. SAIZAR



Dantzarien saioa. Xukan taldearen *Iturrian zer dago?* bertso-dantza saioa oso jendetsua izan zen. Bertsoak entzuteaz gain, dantzari apartak ikusteko aukera ere eman zuen ikuskizunak. JOXEMI SAIZAR



40 postu batu ziren bi guneetan. Intxaurre pilotalekuan eta Teodoro Hernandezena kalean 40 postu inguru izan ziren ikusgai. Jaki eta berduren kasuan, Zizurkilgo zazpi baserriar animatu ziren VII. Azoka Berezian beraien produktuak erakustera. LEIRE MONTES

Milaka lagun VII. Azoka Berezira

Eguraldia lagun, jende asko gerturatu zen igandean Zizurkilera; balorazio positiboa egin dute Udaletik

IÑIGO TERRADILLOS

Eguraldi onak lagunduta jende ugari bildu zen igandean Zizurkil Goian antolatuta zen, VII. Azoka Berezian.

Guztira 40 postu inguru ikusteko parada izan zuten bertara hurbildu ziren milaka lagunek.

Goizeko hamaiketan eman zitzaion hasiera azokari. Hau bi guneetan zegoen banaturik; batetik, Intxaurre pilotalekuan artisauak kokatu ziren, eta Teodoro Hernandezena kalean, bestetik, janari postuak.

Zizurkilgo zazpi baserriar animatu ziren azokan beraien jaki eta barazkiak aurkeztera.

Aurtengoan, *Baserriko argia* eskulturaren bigarren urteurrena ospatu zen eta EBELekoek (Emakume Baserriarren Elkartea), postu berezia jartzeaz gain, eguerdian ekitaldia izan zen eskulturaren inguruan. Oso hunkigarria izan zen, emakume baserriar ugari bildu baitzen hauen lana aintzat har-

tu beharrekoa zela aldarrikatuz.

Ondoren, *Baserriko argia* Saria 2004 banatu zen frontoian. Zizurkilgo baserriarren arteko postu hoberenari ematen zaion sari hau, eta aurten, iaz bezala, Iruña baserriak irabazi zuen. Emakume Baserriarren Elkarteko ordezkariak eman zioten saria Iruña baserriko Lesmes Mujikari.

Bitartean, herriko plazan Etxerat-ek antolatuta euskal presoaren aldeko kontzentrazioa izan zen.

Bazkaria ere arrakastatsua izan zen, txahal errete jateko 150 lagun inguru kontatu baitziren.

Arratsaldean, berriz, *Iturrian zer dago?* dantza eta bertso

saioa izan zen ikusgai. Intxaurre pilotalekua bete egin zen eta jendeak nahiko farre egin zuen bertsoariekin eta gustura ikusi zituen dantzariak.

Balorazio positiboa

Igandeko azokari buruz udalak egin duen balorazioa oso ona izan da. Eguraldi ona izan zela aprobetxatuz milaka lagun gerturatu zen Zizurkilera, beste urteetan baino gehiago antolatzaileen esanetan. Bertara igotzeko jarrirako autobus zerbitzuak ere beterik egin zituen bidai gehienak, eta bazkarirako txartelik gabe geratu zirela kontuan hartuz eta dena pentsatu bezala irten zenez gusturaz azaldu dira antolatzaileak.

HITZA, eskualdeko plaza
 Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta
661 678 818
 Toki aproposa iragartzeko

ANOETA ▶ AHT

Parte-hartzea espero dute AHTren aurka antolatatu den astean

Antolatzaileen helburua azaroaren 6an Donostian egingo den manifestaldirako jendea prestatzea izango da



Aurten ere aurreko urteko mendi martxa errepikatuko dute AHTk izango litzuzkeen ondorioak ikusteko. HITZA

NOELIA LATABURU

Arratsaldeko seietan, garo meta egitearekin, emango zaio hasiera Anoetako Gazte Asanbladak, Anoetarrok Auzolanen herri plataformak eta Anoetako AHT Gelditu! elkarlanak antolatatu duten Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako astea-ri. Gaurtik, eta igandea bitartean, ekitaldi ezberdinak izango dira herrian, azaroaren 6an arratsaldeko seietatik aurrera Donostiako Boulevarretik ir-tengo den manifestaldi nazio- nalerako giroa berotzeko hel- buruarekin. «AHT gelditzearen aldeko borroka luzean une erabakigarrian gaudelako antolatatu dugu aste hau», adierazi du Manu Odriozolak, AHT Gelditu! Plataformako kideak.

Egunero ekintza ezberdinak izango dira eta adin guzientzat eskainiak. Helduenentzat kon- zentrazioak, bazkari eta afa- riak eta hitzaldi informatiboak dira nagusi. «Gure lana gehien- bat jendea AHTri buruz esku- ragarri ez duen informazioa lu- zatzea da», esan du Odriozola- k. Haurrentzat ere pentsatu dira ekitaldiak. Hori dela eta, bihar jolasak eta jana izango dute Gaztetxean. Asteari amaiera emateko babarrun jate herrikoia egingo da igan- de eguardian. Bazkarira joan

nahi dutenentzat txartelak sal- gai daude herriko tabernetan. Era berean, ostiral gauean ospatuko den bertso afarirako sarrerak erosteko aukera dago bihar arte. Bertara gerturatzeko denak entsaladila erusiar era- ra, oilaskoa, postrea eta kafea dastatu ahal izango du. Bien- tzat ere salneurria zazpi euro- tako da.

Ondorio larriak

AHT Gelditu! plataformak Abiadura Handiko Trenaren ezarpenak dakartzen ondorio- ak aztertzen ditu. Alor ezberdi- netan eragingo duela diote. Eu- ren artean, ondorio geografiko- koak aipatzen dituzte. Anoetako Gain Berri etxea bo- tako dute eta trenaren ibilbidea herri- rik berrogehitza hamar metro gertuago ezarri nahi dute. «Gerturatzeko zarata arazo handiak ekarriko ditu Anoetako herriarentzat eta, gainera, onargarritzat jotzen diren za- rata mailak gaindituko dira», adierazi du Manu Odriozolak. Ez dira ordea, hauek ondorio bakarrak. Herrian ezarriko di- ren bi hondakindegia edota bost metroko zabalera dituzten bide berri eta plataformen eraikituzak dira ondorio kalte- garri horien beste adibideeta- ko batzuk. «Honek guztiak

gure faunan eta paisaian kalte- latzak dakartza», aitortu du Manu Odriozolak.

Era berean, gizarte eredian eta ekonomian ere aldatetako emango direla diote. Lurralde desoreka eta globalizazioant- z doan herriaren egoera hizpide izango dira antolatutako hitz- aldiak.

AHT Gelditu! osatzen dute- nek helburu argia dute, AHT gelditzea eta jendearen artean eztabaida irekia sustatzea, alegia. «Garraioen etengabeko hazkundera gutxixeko, hirigune metropolitanoen hedapen bel- durgarria ekiditeko, garapena- ren ondorioak geratzeko eta herriarrei erabakietan parte- hartzeko ahalmen osoa itzul- tzeko egiten dugu lan», azaldu du AHT Gelditu! taldeko kide- ak.

Udalaren jarrera salatuz

Plataforma honek gogorki sa- latzen du Udalak gai honen in- guruan hartu duen jarrera bere «axolagabakeria» dela eta.

Manu Odriozolak adierazi duenez, Udalak ez ditu herri- tarrak informatzen eta gainera AHT Gelditu!, beste herri plata- formekin batera antolatatu izan dituzten ekintzetan Udalak ez du diru laguntzarik eman. Ho-

EGITARAUA ▶

Hauexek izango dira gaurtik hasita aste honetan zehar garatuko diren ekitaldiak.

GAUR

18:00. Garo meta egingo da.
19:00. Kontzentrazioa, *Esan bai AHT gelditzeari* lelopean.

BIHAR

17:30. Merienda herriko ume eta gazteentzat Gaztetxean. Ondoren, jolasak izango dira haurrentzat.

ETZI

19:00. Ekintza informatiboa Gaztetxean: panel informatiboak, filminak eta datu berriak eskainiko dira.

OSTIRALA

21:00. Bertso afaria Estibx Eizagirre eta Agin Rezolaren eskutik Gaztetxean.

LARUNBATA

16:00. Mendi martxa AHTak kaltetuko litzuzkeen tokietatik barrena.

19:00. Trikipoteoa. Ondoren gaitzain jatea plazan.

IGANDEA

10:00. Herriko baserri eta artisauen III. azoka

14:00. Babarrun jate herrikoia.

TXARTELAK

Ostiraleko afari eta igandeko bazkarirako txartelak salgai daude zazpi eurotan herriko tabernatan, bihar arte

nekin batera haien lanaren aurka jasandako erasoan sala- keta egin nahi dute. «Anoetako Udalak kartelak kentzen dizki- gu eta honekin taldearen parte- hartzea mugatzen du, karte- lak baitira, neurri handi bate- an, jendeak AHTri buruzko informazioa jasotzeko duen iturri bakarra», esan du Odri- ozolak.

Baina ez da hau taldeak egin nahi duen salaketa bakarra, arazo gehiagori aurre egin be- harko zaielakoan baitaute. Bes- teak beste, merkantziak gutxi- tuko ez direla, Eusko Jaurlari- tzaren iruzur politika, edo naturaren kalteen aurka borro- katzera deitzen dute aste hon- tan. Jendeak AHTri buruzko in- formazioa jasotzeko duen iturri bakarra», esan du Odri- ozolak.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarralde. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Bronte C. Korreo Kalea 20

(Tolosa). 943 676013

Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Txakurra. Artzai Alemaniar arrazako txakurkumeak. Bi hilabetetakoak. Interesatuek deitu 943 683186 zenbakira, 9:00etik 13:00etara.

Autoa. Renault laguna 1900 DTI, 100 zaldi, tope gama. Interesatuek deitu 636 386527 zenbakira.

ALEGIA ▶ KULTURA

Lan onaren fruitua

Kalitate handiko kontzertu orijinala eskaini zuten Txintxarrikoek igandean; moldaketa ederrak entzun ziren

JOXEMI SAIZAR

Eguerdiko hamabietan zegoen iragarria hasiera, baina meza amaitu gabe zegoen San Joan bataiatzailearen elizan. «Jaunartzean daude», abisatu zuen batek kanpoan pilatzen zirenei. «Gaur telonero lana tokatzen zaigu. Ea publikoa prestatuta uzten digun aurrekoak», zioen Anjel Unzu moldatzaileak.

Halako batean hasi ziren eliztarrak ateratzen, meza bukatu zen seinale, eta kontzertua entzuterako joandakoak sartzen. Herritarrez gain, inguruko jende dezente ere ikus zitekeen. 400 lagun inguru bildu ziren.

Minutu batzuetan soinu tresnak eta megafonia prestatu ondoren, Nerea Pikabeak egin zuen aurkezpena. Txintxarri txikiko haurrek eman zioten saioari hasiera. Jantzera bezain errepertorio alai eskaini zuen Idoia Iraolak gobernatzaren duen ahots taldea. Txikiak mugimenduek eta keinuek kantua jolasarekin uztartzen lagundu zuten, begira zeuden gurasoen —eta gainontzeko— gozamenerako.

Ondoren helduen txanda iritsi zen, lau musikaren laguntzarekin: Mariaje Rekondo pianoan, Julien Goikoetxea perkusioan, Mikel Roper klarinetean eta Garbiñe Sagastibeltza gitarraxuan. Lehen biak herrikoak direla esan behar da. Egitara lau euskal abesti ezagun eta atzerriko beste bi sartzen ziren. Atzerriko kantetan mugimendua eta

perkusiio tresnak sartu zituzten gainera abeslariak. Xefe Balerdi bakarleri gisa aritu zen bi obratan, ondo gainera.

Kontzertuaren gailurra Jose Mari Iparragirren *Trapu zarrak* abestia izan zen, Anjel Unzu iruñearrak egindako moldaketa instrumentala —beste kantu guztienak ere berak egin zituen— estreinaldia zelako eta alegiar bati eskaini ziolako Iparragirrek, Ramon Batista trapu saltzaileari. Iparragirre Alegian asko ibili zen, andregai eta gero emazte izango zuen Anjela Kerejeta Aizpurua *Artaberoneko* bisitatzan.

Abesti ezaguna da eta euskal abeslari askok —Patxi Andion, Oskorri, Xabier Leta...— abestu izan dute, baina jende askok ez zekien alegiar bati eskainia zela. Unzuk moldatu aurretik, partiturak berreskuratzen lan handia egin dute Txintxarrikoek. Rikardo Intxausti txistulari alegiarrak gorde zuen doinua partitura batean, Zumarragako Pascual Okariz txistulariari eman eta honek Antonio Rey apaizari. Azken honek eman dio partitura abesbatzari.

Kontzertua bukatzeko bi abesbatzek —entzuleekin batera— *Eperra* kanta herrikoia abestu zuten. Ondoren elkartzaren bazkarian elkartu ziren abeslariak, musikariak eta lagunak —65 guztira— Tolosaldea jantzetan. Ondo merezita zuten. Kantua ez zen falta izan.

Igandeko kontzertua berezia izan zen, ohikoetatik ateratzen dena. Txintxarriko partaideek



Helduen abesbatzak eta lau musikari laguntzaileak Unzuren moldaketa ederrak eskaini zituzten. J.SAIZAR



Txikiak mugimendua, erritmoa, kantua eta jolasa uztartu zuten ikusleon gozamenerako. J.SAIZAR

lan berezia egin zuten prestatzen, ohiko entseguetatik aparte. Alde batetik historian arakatu dute eta Alegiarekin zerkusia duen abesti bat *berreskuratu* dute. Bestetik, Anjel Unzuk moldaketa instrumental ederrak egin ditu. Azkenik, musikari batzuen lagun-

tza izan dute entseguetan eta emanaldian. Ederki aritu ziren lauk igandeko kontzertuan.

Lan berezi horien emaitza oparoa ikusi zen igandean Alegiako elizan. Musikalki produktua landua eta interesgarria, gutxitan entzuten dena, eskaini zuten. Eta jendearen eran-

tzuna ere aparta izan zen. Jendetza bildu zen, eliza gutxitan bezala betetzera eta interes handiz jarraitu zuten emanaldia. Gauzak ondo egiteak bere fruituak ematen ditu. Ea herri eta egun gehiagotan eskaintzeko —eta guk entzuteko— aukera dutend —dugun—.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88

INMOBILIARIA ETA ASEGIURAK

ETXESAGASTI

Villabona. 85 m²-ko etxebizitza salgai erdialdean. Berritzeko. 3 logela. 27.500.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Bi gelako etxea, berritzeko. Egurrezko egitura. 21.630.000 pta (negoziazarriak). Etxesagasti. 943 69 68 56

Villabona. Etxebizitza eraiki berria salgai. 90 m²-ko. Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 bainugela. Garajea aukeran. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. 69 m²-ko etxebizitza, trasteleku, egongela, sukaldea eta 2 logela. Eraiki berria. 4. pisua igogailuarekin. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. 90 m²-ko etxebizitza, egongela,

sukaldea, 2 logela, 2 bainugela eta jantzigelarekin. Kanpoaldera begira. Eguzkitsua. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ordizia. 291 m²-ko villa salgai. 3 solairuko. 1.037 m²-ko lursaila. 80.000.000 pta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56

Ordizia. 50m²-ko etxebizitza polita salgai. 2 logela, berrikuntza egin berria. Estreinatzeko. 25.000.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ordizia. 85 m²-ko etxebizitza salgai. Egongela, sukaldea, hiru logela, bainugela eta trastelekuarekin. 2. solairua igogailuarekin. Berritu berria, altzariz hornitua. 29.900.000 pezeta.

Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. 90 m²-ko etxebizitza. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Guztiz berritua. Kanpoaldera. Garajea aukeran. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. 60 m²-ko etxea. Egongela, sukaldea, bi logela eta bainugela. Erabat berritua. Horma-armairuak. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. 80 m²-ko etxebizitza salgai. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Guztiz kanpoaldera eta berritua. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. 61 m²-ko eta 8 m²-ko trasteroa duen pisu altua. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Guztiz berritua. Kanpoaldera. Altzariekin. Inmo Etxesagasti.

943 69 68 56.

Zizurkil. 80 m²-ko etxea. Hiru logela. Berritzeko. 28.800.000 pta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Lursaila duen baserria berritzeko. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Asteasu. Etxe individuala. 135 m²-ko hiru solairu eta 15.000 m²-ko lursaila. Sartzeko prest. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Errezil. Landaturismoa alokairuan. Informazio pertsonala. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Behar dira. Eskaera handigatik: landa eta hirigintza sursailak, etxebizitzak, villak, baserriak... salgai edo alokairuan. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

Ohorezko Maila.

Soto del Real-Hegoalde Saikapena ▶	5-4
1. Femesala Elx	15 puntu
2. Ourense	15 puntu
3. UCAM Murztia	13 puntu
4. Foticso Zaragoza	12 puntu
5. Ketall Fuenlabrada	10 puntu
6. Diamante Rioja	9 puntu
7. Futsi Navalcarnero	8 puntu
8. Club Teledeportivo	7 puntu
9. Soto del Real	7 puntu
10. Mostoles	4 puntu
11. Gironella	4 puntu
12. Arturo Eyres Valladolid	3 puntu
13. Valdetires Meiras	3 puntu
14. Goierri Urretxu	1 puntu
15. Hegoalde Tolosa	1 puntu
16. Cabanyal Valencia	0 puntu

1. Maila A.

Ibarra-Ribera de Navarra	3-2
--------------------------	-----

1. Maila B.

Laskorain-GSI Bilbo	6-1
---------------------	-----

ESKU PILOTA

ELKARTEEN ARTEKOAK

Kadeteen 1. Maila.

Aurrera Saiaz-Zazpitiurri	22-13
(Xabier Tellebea/Mikel Nazabal)	
Murumendi-Zazpitiurri	21-22
(Iraola-Jauregi)	

Gazteen 1. Maila.

Lagunak-Aurrera Saiaz	13-22
(Koldo Galarraga)	
Zazpitiurri 1-Lagunak	02-22
(Tolo-Ipintza)	

Gazteen 2. Maila.

Elordi Herrig-Aurrera Saiaz	22-05
(Beñat Iriarte-Xabier Galarraga)	

Nagusien 1. Maila.

Hernani-Aurrera Saiaz	22-06
(Imanol Pastrian)	
Zazpitiurri 2-Aurrera Saiaz	15-22
(Elurbe-Garmendia / Belloso-Mujika)	
Anaitasuna-Zazpitiurri	06-22
(Mintegi-Baez)	

Nagusien 2. Maila.

Zazpitiurri-Bergara	22-10
(Iriarte - Beloki)	

Nagusien 3. Maila.

Hernani-Aurrera Saiaz 1	08-22
(Igor Aranabze-Eneko Galarraga)	
Anaitasuna-Aurrera Saiaz 2	18-22
(Ugaitz Renobales-Aimar Galarraga)	
Intza-Aurrera Saiaz 3	22-15
(Iñigo Arozena-Ion Orbegozo)	

BURLATAKO TXAPELKETA

Berastegi-Amezketeta	18-08
(Arratibel-Arratibel / Altuna-Otamendi)	
Goizueta-Amezketeta	06-18
(Lujanbio-Izagirre / Sukia-Arzelus)	
Barañain-Amezketeta	15-18
(Mikel-Urtail / Zabala-Tellebea)	
Gasteiz-Amezketeta	10-22
(Resano III.a-Otxoa / Elurbe-Beloki)	
Oltza-Amezketeta	04-18
(Goñi-Salvador / Arstimuño-Galluralde)	

FUTBOLA

Gorengoan Maila.

Beti Gazte-Tolosa	2-0
Saikapena ▶	
1. Ordizia	16 puntu
2. Urola	15 puntu
3. UPV/EHU	15 puntu
4. Aretxabaleta	14 puntu

5. Tolosa	14 puntu
6. Pasajes	12 puntu
7. Mutriku	12 puntu
8. Hondarribia	12 puntu
9. Real Union B	11 puntu
10. Zarautz	11 puntu
11. Trinberpe	11 puntu
12. Zestoa	11 puntu
13. Touring	10 puntu
14. Anaitasuna	10 puntu
15. Orioko	10 puntu
16. Beti Gazte	9 puntu
17. Mondragon	8 puntu
18. Oiartzun	5 puntu
19. Aloña Mendi	5 puntu
20. Bergara	4 puntu

Lurraldeko 1. Maila.

Uhartte-Aurrera	0-1
Tolosa B-Beti Ona	1-3
Saikapena ▶	
1. Martutene	14 puntu
2. Allerru	14 puntu
3. Irun 1902	12 puntu
4. Astigarragako	11 puntu
5. Lengokoak	10 puntu
6. Roteta	9 puntu
7. Beti Ona	8 puntu
8. Behobia	8 puntu
9. Ostadar	7 puntu
10. Euskalduna	7 puntu
11. Mariño	7 puntu
12. Ordizia	7 puntu
13. Vasconia	6 puntu
14. Gure Txokoa	5 puntu
15. Amara Berri	4 puntu
16. Tolosa B	1 puntu

Lurraldeko 2. Maila.

Inxurre-Danena	0-1
Lazkao-Amaroz	8-2
Saikapena ▶	
1. Sanpedrotarra	13 puntu
2. Danena	11 puntu
3. Amaro	9 puntu

4. Lazkao	7 puntu
5. Usurbil	6 puntu
6. Lasarte Oria	3 puntu
7. Inxurre	3 puntu

Jubenilen Euskal Liga.

Tolosa-Eibar	1-0
--------------	-----

Jubenilen 1. Maila.

Beasain-Inxurre	7-3
Vasconia-Billabona	10-3

Kadeteen Euskal Liga.

Alaves-Tolosa	4-1
---------------	-----

FUTBOL 7

1. Maila.

Callejo Lanperna-Ibarrako GA	0-3
C.R. Seguros-Lanbroa Dickens	1-5
Saikapena ▶	
1. Knauf-Dec. Nuñez	13 puntu
2. Robers	10 puntu
3. Zibbibo Dance Club	10 puntu
4. Bataplan	9 puntu
5. Perku taberna	8 puntu
6. Callejo Lanperna	8 puntu
7. Lanbroa Dickens	8 puntu
8. Zardoya Otis	8 puntu
9. Kroms	6 puntu
10. La Kabutzia	6 puntu
11. St. Etienne Cafe Bar	5 puntu
12. Irish Guinness	4 puntu
13. Bar Ignacio Hondarribia	4 puntu
14. Cesar Rueda Seguros	3 puntu
15. Ibarrako G. Asanblada	3 puntu
16. Easo Motor	2 puntu

2. Maila A.

In the line-Bar Shanti Kirolak	1-3
Saikapena ▶	
1. Pub Egarrri	13 puntu
2. Ekin Fisioterapia Zentroa	11 puntu
3. Aseplan	10 puntu
4. Bar Shanti Kirolak	10 puntu

5. Disco Bar Egur	10 puntu
6. Ron Cartavio	8 puntu
7. Taberna Dani	8 puntu
8. R. Izkina-Pasaia	7 puntu
9. Eibartarra Dance Club	6 puntu
10. In the line	6 puntu
11. Akelenea sagardotegia	5 puntu
12. Encofrados Iguazuri	4 puntu
13. Cabo Rojo-Pyxies	4 puntu
14. Nin Climatizacion	3 puntu
15. Papeleria Tamayo	2 puntu
16. Fermax Instalaciones GC	2 puntu

SASKIBALOA

Senior maila.

CAF Beasain-Aralar	49-60
--------------------	-------

ZESTA-PUNTA

ELKARTEEN ARTEKOAK

Kadeteak.

Beotibar 1-Zumaia 1	21-30
(Telleria-San Sebastian)	

Jubenilak.

Beotibar 1-Donostia Jai Alai	20-35
(Orrantia-Rezola)	

Nagusiak.

Beotibar 1-Gazteleku 3	35-29
(Arteixe-Garmendia)	
Beotibar 2-Zumaia 4	23-35
(Trabazos-Gonzalez)	

SANTA LUZIA TXAPELKETA

Alebinak.

Lopez-Odriozola / Mugerza-Uranga	15-05,15-10
----------------------------------	-------------

Infantilak.

Gabarain-Izagirre/Sanchez-Bildarraz	15-14, 12-15, 10-9
-------------------------------------	--------------------

TOLOSA ▶ FUTBOLA

Lehengo lepotik burua

Ate aurrean huts egiten jarraitzen dute Tolosako jokalariek

LEIRE MONTES

Lehengo lepotik burua. Halaxe laburbiltzen da Jose Mari San Sebastian Gorengoan mailako Tolosako delegatuak jokalarien jokoa. Haren esanetan, taldeak ezaugarri bera errepikatu du denboraldiko partida guztietan: ate aurrean huts egitea. Igandean ere urdinek ez zuten asmatu jokaldiak amaitzen, eta Lesakako Beti Gazte taldearen kontra 2-0 galdu zuten.

«Zorte txarra» izan zuten berriaz ere bidelagun Tolosakoek: «Beti Gaztekoak beren arean sartuta pasatu zuten lehen zati osoa. Behin izan zuten aukera, eta orduan sartu ziguten gola. Bigarren zatian ere antzera aritu ginen. Haiek lau aukera garbi izan zituzten partida osoan, eta bi gol sartu. Guk, berriz, mila; eta ez genuen bat ere bukatzen asmatu». Lasak zutoinera bidali zuten baloia, baita Regillagak eta Aimarrek ere; Aimarrek berak bi gol aukere-

tan huts egin zuen, eta Blancok eta Oruek beste banatan. Delegatuaren esanetan, «huts-egiteko horiek ez dira urduritasunagatik edo konfiantzarik ezagatik. Joko ona egiten jarraitzen dugu. Gure zaleek eta beste taldetakoek ere aspimarratzen dute hori. Baina ez dakit zer pasatzen zaigun bukaeran».

Porrot honen ondorioz lider-gotik sailkapeneko bosgarren postura jaitsi da Tolosa —14 puntu dituzte urdinek, eta Ori-

dizia liderrak, 16; lau partida irabazi ditu Tolosak, bi berdindu eta bi galdu—. Baina sailkapenak ez dio buruko min handirik ematen taldeko ordezkariari: «Maila oso parekatu dago. Aldeak txikiak dira, eta jardunaldi batetik bestera sailkapena goitik behera alda daiteke. Asteburukoa ahaztu egin behar dugu, eta hurrengo partidaren pentsatu».

Larunbatean Orioko taldea hartuko du Gorengoan Mailako Tolosak Berazubini, 16:30ean. Partida berezia izango da urdinentzat. Izan ere, ondo ezagutzen dituzten lau jokalaritolo-sar aritzen dira Oriokon: Asier Saez, Josema de la Parra, Peio Balda eta Jon Jauregi.

BETI GAZTE ▶	2
---------------------	----------

TOLOSA ▶	0
-----------------	----------

Beti Gazte. Susperregi, Iñigo, Imanol (Arenas, 85m.), Eneko, Jon, Larruy, Maia (Pikabea, 89m.), Irazoki, Larralde (Bertiz, 83m.), Irigoien eta Apeztegia (Saralegi, 67m.) .
Tolosa. Mujika, Goikoetxeandia (Patxi, 63m.), Garmendia (Aierbe, 63m.), Romero, Aimar, Pablo (Garagarza, 74m.), Orue, Prados, Blanco (Javier, 58m.), Regillaga eta Lasa (Christian, 58m.).
Golak. 1-0: Maiaki (40m.); 2-0: Apeztegiak (57m.).


www.tolosaldekohitza.info
▶ sar zaitез eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

ARESOS ▶ KULTURA

Umeak ez ezik, haien gurasoak ere gustura izan dira antzerkian

Udazkeneko bira programazioko saioa izan dute herrian, udazken beteari dagokion giro epel eta sargorian



Bakoitzak aukeratu zuen lekutik adi-adi jarraitu zituen, Txintxiren kontakizunak. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Antzerki eguna izan zuten larunbatean Areson eta eskatuta ere, ez zuten giro eta leku horberik aurkituko eta ikusleak, ere gustura asko egon ziren ikuskizunari begira.

Izan ere larunbat iluntzean, Panta Rhei txontxongilo taldearen eskutik, Txintxilipurdi erregea antzezlanak ikusteko aukera izan zuten Aresoko umeez ez ezik, haien guraso eta bertara inguratu ziren guztiek. Ekitaldia udal aretoan bu-

rtutzekoa bazen ere, eguraldi ezin hobea zela eta, eszenatokia plazako larrean muntatu eta bere hartantxe eskaini zuten emanaldia, aire librean beraz.

Txintxi eta bere lagunen kontakizunen haria aise asko jarraitu zuten gaztetxoek, zeuden lekuan zeudela ere—inguruko zuhaitzen gainetatik batzuk—, eta pertsonaien galdera eta eskakizunei erantzun ere bai.

Udazken beteko eguna izaki, han bertan zegoen ikuskizu-

noz gain, noizean behin inguruko mendietan ehizatarien emana nabaritu zen eta aldirika-aldizka uso, nahiz txori taldeen paseak ere erreparatu zituzten ikusleek. Ez zuten aspertzeko betarik izan beraz, begiratzen zuten lekura begiratzen zutela ere.

Larunbateko kultur ekitaldi hau, Aresoko Udalak antolatuta zuten, Kultura Departamenduak Nafarroako herri ttikietan, herriz herri bideratu ohi duen Udazkeneko bira delako egitarauaren barrenean.

OREXA ▶

Euskal folklorea gaurko hitzaldian

Orexako Kutur Hamabostaldieran baitan, gaur 21:30ean *Euskal folklorea: dantzak, erritualak eta mitologia* izenburupean hitzaldia izango da entzungai Juan Antonio Urbeltz eta Nabarraideren eskutik.

ANOETA-IRURA ▶

Euskara ikasteko laguntzak

Irura eta Anoetako udalek euskara ikastaroa antolatuta dute. Izen ematea, azaroaren 2a baino lehen egin behar da. Azarotik ekainera iraungo du ikastaroak eta astan hiru egunetan emango dira eskolak. Bestalde, euskara ikasteko diru laguntzak emango dituzte bi udalek.

BIDEGOIAN ▶

Jose Maria Larrarte hil zen larunbatean

Jose Maria Larrarte pasiotar euskaltzaina hil zen larunbatean Urretxun 78 urte zituela. Jaiotzez bidaniarra, grekera, latina, frantsesa, ingelesa eta euskara irakasle izan zen. 1987an euskaltzain urgazle izendatu zuten. 2002ean oheretako kide izendatu zuten Euskaltzaindiak. Iruñeko Hizkuntza Eskolako irakasle eta Eusko Legebiltzarreko bat-bateko itzultzaile izan zen. Hileta elizkizunak atzo izan ziren Urretxun.

LEITZA ▶ KIROLA

Aurrera KE-k kanpoan lehen aldiz irabazi du denboraldian

0 eta 1eko emaitza eskuratu du Uharteren aurka jokaturako partidua zail eta luzean

J. ASTIBIA

Aurrera K.E.ak, larunbatean jokatu zuen partidua Uharteren aurka, han, eta 0 eta 1eko emaitza eskuratu zuen. Aurtengo denboraldian, beraz, lehendabiziko aldiz, kanpoan lortutako 3 puntu poltsean zituztela etxeratu ziren, Salazarren mutilak.

Partidua zaila izan zuten jokalariek, zelaia hondarrezkoa izanik, oso harro zegoelako zorua eta jokalariei laister egite hutsa ere, nekoso gertatzen omen zitzairen. Arrazoi hau tarteko, Harkaitz Bengoetxeak izertxo koan zain-tiratu izan zuten, baloiaren atzetik zihola, zangoa hondarretan sartuta gelditu omen zitzaion «hondartzan jokatzen aritu izan balira bezalatsu jokatu zuten; hankak hondarretan sartuta gelditzen zitzaizkien eta baloia ere erdi geldituta», adierazi zuten.

Baina zailtasuna areagotu zuena aurkariaren joko lardatsa izan omen zen batez ere. Horren adierazle izan zen, arbitroak uharterre zappi txartel aterra izana, denak sarrera txar eta arriskutsuak egiteagatik. Horrela, joko askotan moztu beharrean aurkitu omen zen eta ondorioz, 9 minutu luzatu zuten partidua. Hain zuzen ere, luzapenean sartu zuten Aurrera taldearentzat garaiaren gola, Eneko Barberiak, Leitzako taldeari hiru puntu baliosu gehitzeko baliagarri izanik.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47-behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 119.000 Eurotik aurrera.

Tolosa. Korreo, 2 logela, erabat berritua, ezin hobeto, igogailua jartzeko aukera.

Tolosa. Santa Klara. 4 logela. Berokuntza. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.

Tolosa. Santa Klara. 2 eta 3 logelako pisuak salgai, sukalde, egongela eta bainugelarekin. Berokuntza. 167.090 eurotik aurrera.

Tolosa. Larramendi. Orain dela gutxi eraikuntza. 2 logela, sukalde, egongela eta trastelekuak. Berokuntza. Ezin hobeto.

Tolosa. Amaro zuzoan oso egoera

onean dagoen etxebizitza salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Larramendi. Pisu ederra garajearekin salgai.

Tolosa. Gernikako lorategian, 108 m2. Pisu ederra salgai.

Trastelekuarekin.

Tolosa. Araba etorbidea. Pisu ederra, garajea eta trastelekuarekin. Berokuntzarekin. Bista ederrak eta eguzkitsua.

Tolosa. Foruen Etorbidean gutzit berritutako etxebizitza salgai.

Ikustekoa!!!

Tolosa. Erdialdean azkeneko pisua

terraza ederrarekin. Aukera

paregabea!!!!

Ibarra. Julian Gaiarren. Berritutako etxebizitza salgai. 3 logela, sukalde, egongela eta komuna.

Berogailuarekin. Gutzit kanpoaldera.

Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Villabona. Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.

Villabona. Etxe-ondo. Pisu ganbara eta garaje ibixiarekin.

Villabona. Kale berrian 180 m2ko etxebizitza berokuntzarekin.

Villabona. Errota. Pisu ganbara eta garaje ibixiarekin.

Villabona. Kale Berrian. Eraikuntza

berriko etxea salgai. Garaje bikoitza itxia aukeran.

Villabona. Larrea eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua Berrobi, 2 logeletako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 Euro.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trasteleku eta garaxearekin.

Alegia. San Juan kalean 161 m2ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.

Ikaztegieta. Eraikuntza berriko etxe abikia salgai. 270.455 euro.

Ordizia. Berritutako etxebizitza merkea salgai.

Peñiscola. apartamentu ederra salgai, terraza ederrarekin.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko urriaren 26a, asteartea ▶ II. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

16

hotzera

12

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzola, Aduna, Albitzar, Alegia, Alkiza, Alzo, Arnedeta, Arceña, Balarin, Belauntza, Berastegi, Edoan, Herriola, Ibaña, Iruja, Lantada, Leizorua, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Vilabona, Zuzurki

Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaureritza, Kultura Saila



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aitzo. Adinekoentzako gimnastika ikastaroa hasi aurretik, zalantzak argitzeko eta argibide gehiago emateko bilera irakaslearekin, 17:30ean liburutegian.

Tolosa. Babxilergo 1 eta zikloetako ikasleen guraso bilera izango da 18:30ean Eskolapioetan..

Tolosa. 36. Abesbatza Lehiaketarako sarrerak salgai daude TEE-CITen (Emeterio Arrese 2) 17:00etatik 20:00etara. Salneurria: 7 euro (haurrek 3 euro); amaiera ekitaldian 12 euro (haurrek 6 euro).

Tolosa. Shorinji kempo egin nahi duenak, Berazubiko kiroldegian azal daiteke astelehen, asteazken eta ostiraletan 19:30etan 21:00etan. Lehen hilabetea doan izango da, proba gisa.

Oresa. *Euskal folklorea: dantzak, erritualak, mitologia* hitzaldia Juan Antonio Urbeltz eta Nabarralderen eskutik. 21:30ean kultur gelan.

ERAKUSKETAK

Berastegi. Sarekide. Goizean ikasteentzako bisitak eta arratsaldean herritarrentat. Muñagorri eskolan.

Hernialde. Maria Pilar Irastorzaren koadroak. Ostatu tabernan.

Ibarra. *Ogibideak eta lanbideak.* Argazkiak. Benito Izagirre kultur etxean.

Leitza. Pako Zufiaurren argazkiak. Torrea tabernan.

Tolosa. Maria Pilar Irastorzaren koadroak. Lanbroa tabernan.

Tolosa. Nerea Lopezen serigrafia. Fronton kafetegian.

Tolosa. Ana Gonzalez Atorrasagastiren lore lehorrak. Saikin tabernan.

Tolosa. David Barandiaranen koadroak. Sorron dendan.

ZINEMA

Alegia. Michael Moore-ek zuzendutako *Fahrenheit 9/11* filma estatubatuarra izango da ikusgai bihar Gaztebean 21:30ean.

Tolosa. *El fuego de la venganza.* 19:30ean eta 22:30ean Leidor zineman.

Jubilatuaren ospakizunak

BELAUNTZA ▶ Jubilatuaren Eguna ospatu zuten igandean Belauntzan; jolasak, trikitilariak, bertsolariak eta opariak, denetarik izan zuten.



Igandean Belauntzako Jubilatuaren Egunean bildu ziren lagunak Belauntzako Bentaren aurrean, bazkaltzera sartu aurretik. KLISK

IÑIGO TERRADILLOS

Igandean Jubilatuaren Eguna ospatu zuten Belauntzan, urtero egin ohi duten bezala. Uli mankomunitatek eta Belauntzako Udalak antolatuta.

Herritar ugari bildu ziren eta egitarau zabala zuten zain. Meza nagusia izan zen lehen-dabizi herriko elizan eta hau amaitzean toka txapelketan aritu ziren jubilatuak. Emakumeen artean txapelketa bat egin zen eta bestea gizonezkoen artean, emakumeetan Simo-

nik irabazi zuen eta gizonezkoetan, berriz, Pellok. Hauek gazta bana izan zuten sari bezala.

Toka txapelketarekin nahiko ondo pasa eta gero bazkari ederra zuten zain.

Guztira 25 bat jubilatu bildu ziren Bentan bazkarirako, eta honetaz gain, Edurne Arbelegi, Belauntzako alkatea eta bi zinegotzi ere izan ziren.

Bazkaria amaitzean opari banaketa egin zen. Kasu honetan, izena emandako guztien artean zozketa egin eta bi pertsona hautatu ziren.

Txomin eta Rosa izan ziren irabazle txartela zutenak eta horren ordainetan opari dotorea eman zutenak etxera; hain zuzen ere, erloju bat irabazi zuten biek ere.

Bazkarian umore ona eta irribarreak falta ez baziren ere, giroa trikitilariak eta bertsolariak jarri zuten jubilatuaren bazkarian.

Bertso politikak entzun ziren eta txalo mordoa jaso zuten bertsolariak. Trikitilariak, berriz dantzarako doinuak ikutu zituzten eta asko izan ziren aul-

kietatik altxa eta dantza saio dotoreak egin zituztenak.

Eguna ederki pasa zutela zioten guztiek eta penaz amaitu zuten igandekoa, baina datorren urtean ere izango da gehiago.

Alkateak ere oso polita izan zela eta guztia oso ondo irten zela zioen HITZARI.

Ondo pasatzeko adinak ez du zerikusirik, gogoia zateaz askotan nahikoa omen da, beste la konta dezatela igandean Belauntzako Jubilatuaren Egunean bildu zirenek.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Eneko Imaz (Villabona). Atzo 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat Berastegiako familaren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
 HITZAren egoitzetara:
 Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
 Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!